

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2016/2017 ikasturtea**

### **HAURREN AHOZKO KONTAKIZUNEN HIZKUNTZA GAITASUNA: D EREDUKO ETA EUSKARAZKO FAMILIARIK GABEKO 5 URTEKO KLASEAN**

**Egilea: Ane San Martín González**

**Zuzendaria: Mikel Iruskieta Quintian**

**Leioan, 2017ko maiatzaren 30ean**

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Marko teorikoa .....	5
2.1. Hizkuntza irakasteko faktoreak.....	5
2.1.1. Faktore linguistikoak: 1H tratamendua eta testuinguru linguistikoa .....	5
2.1.2. Faktore ez linguistikoak: motibazioa, jarrera eta gurasoen nahia .....	7
2.2. Haurren hizkuntza ebaluatze prozedurak eta baliabideak.....	8
2.2.1. Ebaluatzailearen rola .....	8
2.2.2. Materiala.....	9
2.2.3. Hizkuntza Prozesatzeko Tresnak .....	9
3. Metodologia.....	11
3.1. Ikasle multzo bi.....	11
3.2. Corpora lortzeko baliabideak.....	11
3.3. Corpora lortzeko modua .....	11
3.4. Transkripzioak .....	12
3.5. Corpusaren azterketa Hizkuntzaren Prozesamenduko tresna automatiko batekin	13
4. Emaitzak .....	16
4.1. Izenak.....	16
4.2. Aditzak.....	17
4.3. Adberbioak.....	17
4.4. Determinatzaileak .....	18
4.5. Konjuntzioak.....	19
4.6. Deklinabide kasuak.....	20
4.7. Emaitza orokorrak.....	21
5. Esku-hartzea .....	22
6. Ondorioak .....	23
Erreferentzia bibliografikoak.....	25

### Eranskinen aurkibidea

1. Eranskina: Eskolako haurren gurasoei zuzendutako galdetegia.....	2
2. Eranskina: Ipuinen irudiak.....	4
2.1. Papá olvida su merienda .....	4
2.2. El gatito negro se pierde .....	7
3. Eranskina: Transkribapenak .....	10
3.1. Haur euskaldunen transkribapenak.....	10
3.2. Haur atzerritaren transkribapenak.....	27
4. Eranskina: Haur bakoitzaren emaitzen taulak .....	47
4.1. Ikasle euskaldunak .....	47
4.2. Ikasle atzerritarrak .....	49
5. Eranskina: Hitz-kategoria bakoitzaren taulak.....	53

**HAURREN AHOZKO KONTAKIZUNEN HIZKUNTZA**  
**GAITASUNA: D EREDUKO ETA EUSKARAZKO FAMILIATIK**  
**GABEKO 5 URTEKO KLASEAN**

**Ane San Martín González**

**UPV/EHU**

Gaur egun, eskoletan ikasle etorkinen presentzia gero eta ugariagoa da. Hortaz, eskolek euskara hizkuntza sustatzeaz gain, haur bakoitzaren ama-hizkuntza errespetatu eta landu behar du. Hori horrela, lan honetan murgiltze programan eskolatuta dauden 5 urteko 8 haur etorkin eta 8 haur autoktono aztertu dira, horiek ezaugarri linguistiko batzuetan (izenak, aditzak, adjektiboak, adberbioak, determinatzaileak, konjuntzioak eta deklinabidea) daukaten jabekuntza maila ahoz zein den dokumentatzeko eta hobetzeko jarduerak proposatzeko. Horretarako, haurrei irudi bidezko elkarrizketak egin zaizkie. Geroago, horiek transkribatu dira eta taulak erabiliz, emaitzen azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin da.

*Haur etorkinak, haur autoktonoak, ahozko hizkuntza, bigarren hizkuntza, eskola*

Hoy día, la presencia de alumnos/as extranjeros/as ha aumentado en las escuelas, por lo que éstas, además de impulsar el euskera, deben respetar y tratar la lengua materna de cada niño/a. Por eso, en este trabajo se ha analizado el uso de la lengua analizando varias características lingüísticas (sustantivos, verbos, adjetivos, adverbios, determinantes, conjunciones y declinación) en 8 niños/as extranjeros/as y 8 niños/as autóctonos/as de 5 años, escolarizados en un programa de inmersión lingüística, con el objetivo de documentar el conocimiento oral de los mismos/as y proponer actividades de mejora. Para ello, los/as niños/as han sido entrevistados utilizando secuencias de imágenes. Estas entrevistas han sido transcritas y mediante tablas se ha hecho un análisis cuantitativo y cualitativo de los resultados obtenidos.

*Niños/as extranjeros/as, niños/as autóctonos/as, lenguaje oral, segunda lengua, escuela*

Nowadays, the presence of foreign students in schools has increased which in addition to promoting the Basque language, must respect and treat each child's mother tongue. Therefore, in this task we have examined 8 foreign and 8 autochthonous 5-year-old children enrolled in a language immersion programme, making use of several linguistic features (nouns, verbs, adjectives, adverbs, determinants, conjunctions and declination) with the aim of assessing their the oral knowledge and proposing activites for them to make progress. For this, the children were interviewed using some pictures. These interviews were transcribed and analised quantitatively and qualitatively using charts.

*Foreign children, autochthonous children, oral language, second language, school*

## 1. Sarrera

Gaur egun jendartea gero eta pluralagoa da eta eskolak aniztasun horri aurre egin behar dio. Izan ere, “eskola esparru giltzarria da, ez bakarrik nortasunaren sorrerarako gune garrantzitsua delako, baizik eta eskolan bertan etnia, kultura eta hizkuntza ezberdinen arteko elkarrekintzak, elkartrukeak eta elkarrekiko harremanak ere gertatzen direlako” (Manterola eta Berasategi, 2011: 105).

Hori dela eta, Euskal Herriko eskolek erronka handia daukate. Alde batetik, haurren ama-hizkuntzei tratamendu egoki bat eman behar dietelako, haiek beren hizkuntza begirunez tratatua dela nabari dezaten. Beste aldetik, haurren porrot akademikoa ekidin eta Euskal Herriko berezko hizkuntza, hau da, euskara, modu egokian irakatsi behar dute.

Izan ere, Vilaren (2006) arabera, azken urteotan ikerketa asko egin dira haur atzerritarrek bigarren hizkuntza batean eskolatzeari dagokionez. Ikerketa horien emaitzak ez ziren batere positiboak izan. Vilak (2006: 130-131) horrela jakinarazten du: “los trabajos existentes sobre la relación entre inmigración y éxito escolar son decepcionantes (...). Una de las explicaciones de esta realidad se corresponde con su nivel lingüístico”. Manterolak eta Lardizabalek (2009), ordea, haur atzerritarren artean desberdintasun nabarmenak aurkitu zituzten arren, lortu zituzten emaitzak ez ziren hain negatiboak izan. Izan ere, ikasle etorkinek euskara hizkuntzan gaitasun batzuk bereganatu zituztela erakutsi zuten. Hala ere, kasu horretan, haurrek bizi zuten ingurunea euskalduna zenez, kalean euskaraz hitz egiteko aukera handiagoa zuten eta hori faktore garrantzitsua izan daiteke.

Aipatutako ikerketa horiek, orokorrean, Lehen Hezkuntzako eta DHBko haurrekin egin ziren<sup>1</sup>. Lan hau, ordea, Haur Hezkuntzako eta zonalde erdalduneko 5 urteko 16 haurrekin egin da, hau da, gaztelania ama-hizkuntza baina euskararekiko aldeko jarrera erakutsi duten 8 haur eta bestelako jatorria duten beste 8 haurrekin.

Ikerketa hori egiteko, Zalla<sup>2</sup> herriko Mimetiz eskola<sup>3</sup> aukeratu da. Herri horretako kaleetan gaztelania gehien entzuten den hizkuntza da eta euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza denez, eskolako hizkuntza nagusia da.

Gaztelania eta euskara ez dira Zallan entzuten diren hizkuntza bakarrak, bestelako hizkuntzak ere entzuten dira, hala nola, arabiarra, errumaniera, txinera, etab. Izan ere,

---

<sup>1</sup> Manterolaren (2010) tesian izan ezik. Honek 5 urteko haur bat aztertu zuen.

<sup>2</sup> Zalla Enkarterrietan kokatuta dagoen udalerrri bat da, 8379 biztanle dituena. Iturria: <http://www.zalla.org/>

<sup>3</sup> Eskolari eta bereziki bertako irakasleari eskerrak eman nahi dizkiot, eman didaten laguntza guztiagatik eta lan hau egin ahal izateko baimena eman izanagatik.

Eusko Jaurlaritzak (2014<sup>4</sup>) egin dituen inkesten arabera, azken urteotan migrazioak gora egin du eta hizkuntzak ere ugartu dira. Zallan ere, honako egoera hau ikusi ahal dugu (ikus 1. taula).

Zallako biztanleen ama-hizkuntza		
Biztanle kopuru totala	8379	% 100,00
Euskara	231	% 2,76
Gaztelania	7554	% 90,15
Biak	241	% 2,88
Beste batzuk	353	% 4,21

1. taula: Zallako biztanleen ama-hizkuntza (Eustat, 2011)<sup>5</sup>

Datu horien arabera, Zallan ama-hizkuntza euskara soilik dutenak, atzerriko-hizkuntzaren bat dutenak baino gutxiago dira eta Zallako eskolak gero eta ikasle etorkin gehiago hartzeko joera du. Gainera, etorkin horiek euskara erabiltzeko gero eta aukera gutxiago dituzte. Izan ere, lehen esan dudan bezala, gaztelania da Zallako kaleko funtzio eta erabilera ia guztiak betetzen dituen hizkuntza.

Euskarak Zalla herrian duen egoera ikusita, lan honen helburua murgiltze programaren barruan ikasten duten 16 haurren maila linguistikoa (izenen, aditzen, adberbioen, determinatzaileen, konjuntzioen eta deklinabide kasuen erabilera) konparatzea da, hizkuntzaren jabeak maila ahoz zein den dokumentatzeko eta hobetzeko jarduerak proposatzeko. Horretarako, 16 haurrak bi taldeetan banatu dira: alde batetik, ama-hizkuntza gaztelania duten baina euskarekiko aldeko jarrera erakutsi duten 8 haur eta beste aldetik, bestelako jatorria duten beste 8 haur.

Bi talde horien maila linguistikoa ezagutzeko, Toughék (1987) diseinatutako “El gatito negro se pierde” ipuinaren irudiak kontatzea eta galdera batzuei erantzutea eskatu zaie. Geroago, haurren hitzak transkribatu eta Otegik, Imazek, Diaz de Ilarrazak, Iruskietak eta Uriak (2017) sortutako ANALHITZA<sup>6</sup> programarekin aztertu dira konparaketa taulak erabiliz.

<sup>4</sup>[http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe\\_epie\\_2014/es\\_epds2012/adjuntos/Informe\\_EPIE2014-es.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_epie_2014/es_epds2012/adjuntos/Informe_EPIE2014-es.pdf)

<sup>5</sup>[http://www.eustat.eus/elementos/ele0000400/ti\\_Poblacion\\_de\\_la\\_CA\\_de\\_Euskadi\\_por\\_ambitos\\_territoriales\\_lengua\\_materna\\_y\\_lengua\\_hablada\\_en\\_casa/tbl0000490\\_c.html#axzz4TDblvHza](http://www.eustat.eus/elementos/ele0000400/ti_Poblacion_de_la_CA_de_Euskadi_por_ambitos_territoriales_lengua_materna_y_lengua_hablada_en_casa/tbl0000490_c.html#axzz4TDblvHza)

<sup>6</sup><http://ixa2.si.ehu.es/clarink/analhitza.php?lang=eu>

## 2. Marko teorikoa

### 2.1. Hizkuntza irakasteko faktoreak

Euskal Herrira etortzen diren etorkin gehienek etxetik eskolara hizkuntza aldatzea dakarren programetan eskolatzen dira, batez ere, murgiltze programetan. Beraz, eskolako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ezarrita dauden ekintzetan modu aktiboan parte hartu nahi badute, eskolan irakaskuntzarako erabiltzen den hizkuntzan gaitasun linguistiko nahikoak bereganatu behar dituzte, gure kasuan, euskara hizkuntzan (Vila, 2006). Izan ere, hizkuntzen ikaskuntza da giltzarria eskola-arrakasta lortzeko (Manterola eta Berasategi, 2011).

Haurrentzat eskolako hizkuntza ikasteak bigarren (edo hirugarren) hizkuntza bat ikastea suposatzen du eta hori ez da prozesu erraza. Izan ere, ikaskuntza horrek hainbat faktorez baldintzatuta dago. Solosonak (2008) egindako sailkapenari jarraituz, faktoreak bi multzotan sailkatu dira: faktore linguistikoak eta ez linguistikoak.

#### 2.1.1. Faktore linguistikoak: 1H tratamendua eta testuinguru linguistikoa

Vilak (2006) haren lanean bigarren hizkuntza bat ikasteko ezinbestekoa den lehengo hizkuntzaren tratamenduaren garrantzia azpimarratu zuen. Haur etorkinen kasuan, baldintza hori betetzea oso zaila da. Izan ere, irakasleak haur etorkinen ama-hizkuntza guztiak ezagutzea eta horiek tratatzea ezinezkoa da. Beraz, irakasleak haurrei hizkuntza berria ikasteko era askotako mekanismo eta bitartekoak eskaintzeaz gain, haurren jatorrizko hizkuntza gelan sustatu behar du. Horretarako, gero eta baliabide gehiago sortzen ari dira, esate baterako, Lingolang<sup>7</sup> web gunea. Horren bitartez, bestelako jatorria duten hurrek beren hizkuntzari buruzko informazioa eta oinarrizko hitz batzuk beste pertsonekin elkarbanatu ahal dituzte, horrela beren hizkuntzei garrantzia eta baliagarritasuna emanaz.

Haurren jatorrizko hizkuntzei garrantzia ematen ez bazaie, Bilbaok (1998) aipatutako elebitasun kentzailea<sup>8</sup> gertatu ahal dela aipatzen du. Kasu horretan, haurrak bere jatorrizko hizkuntza alboratuko du eta horrek eragin handia izango du eskolan,

---

<sup>7</sup> <http://www.lingolang.net/>

<sup>8</sup> Elebitasun kentzailea hizkuntza batek besteari lekua kentzen dionean gertatzen da (Bilbao, 1998).

emaitza porrot akademikoa izanik. Beraz, haurrei beren hizkuntza erabiltzeko aukera eman behar zaie bestela, baliteke, beren jatorrizko hizkuntza alboratzeaz gain, eskolako hizkuntzan, hau da, euskaran, maila apala lortzea (Bilbao, 1998). Aipatutako elebitasun kentzaile horri aurre egiteko, Vilak (2010) ama-hizkuntzen aniztasunari aurre egiteko bide ezberdinak proposatzen ditu: i) ikasleen ama-hizkuntzen ezagutza sinbolikoa, ii) hezkuntza-praktikan ikasleen ama-hizkuntzak erabiltzea eta iii) ama-hizkuntzak eskolan irakastea.

Haurrek ikasten ari diren bigarren hizkuntza modu egokian jasotzeko, haren ingurunean dauden pertsonen *input* ulergarria eta kalitatezkoa eskaini behar diote. *Input*<sup>9</sup> hori ulergarria izan dadin, 2. taulan zehaztutako ezaugarrien arabera eratuta egon beharko da.

<p>FONETIKA-FONOLOGIA</p>	<p>Ahoskera zein intonazio argia eta nabarmena. Mantsoago hitz egitea. Azentu eta pausaldiak gehiago nabarmentzea. Kontrakziorik ez.</p>
<p>MORFOLOGIA ETA SINTAXIA</p>	<p>Esaldi ez hain konplexuak, hau da, perpaus menderatu gutxiago: “Amonak katua ez dela txarra esan du” esan ordez, “Katua ez da txarra” esanez. Informazio morfosintaktikoa argitzen dituzten marka gehiago: aditzak, izenak, adjektiboak... Esaldi laburrak, orden normalean (subjektua, objektua eta aditza) eta orainaldian (orain eta hemen): “Katuak arraina jan du”. Elipsiak eta proformak<sup>10</sup> saihestu: “Katua etxean sartu (zen) eta dena hankaz gora jarri zuen”. Galdera gehiago: “Zer pentsatzen duzu?”, “Zer ikusten duzu?”... Erlazio sintaktiko-semantikorako lokailu eta markatzaile gehiago: eta, edo, baina, beraz, ala...</p>
<p>SEMANTIKA</p>	<p>Semantikoki kargatutako elementu gehiago (izenak eta aditzak): txakurra, amona, ikasi, egin... Lexiko gutxiago, eta maiztasun handikoa: katua, etxea, mahaia... Esamolde berezi gutxi: “leher eginda nago” erabili beharrean “nekatuta nago” erabiltzea. Hizketa-gai sinpleak eta egunerokoak: kotxeak, animaliak...</p>

2. taula: Jatorrizko hiztun ez direnei zuzendutako hizketaren ezaugarri moldatu batzuk (Ruiz-Bikandi, 2009:72).

<sup>9</sup> Irakasleak ikasleei zuzentzen dion berbeta (Ruiz-Bikandi, 2009).

<sup>10</sup> Sintagma bat ordeztu ahal den hitz edo morfena bat, adibidez, izenordainak.

Hurrek beren *outputa*<sup>11</sup> jaso duten *inputaren* arabera eraikiko dute. Hala ere, hurrek *output* egokia eraikitzeke baldintza bakarra ez da irakaslearen *inputa* egokia izatea, baizik eta hurrei hizkuntza-produkzioetan, hau da, komunikazio egoeretan aktiboki parte hartzeko aukerak eskaintzea. Horrela, hurrek egoera horietan ulertu dituzten hizkuntza elementuak eta mekanismoak etengabe frogatu ahal ditu (Ruiz-Bikandi, 2009). “Hori guztia jarduera ludiko eta motibagarrien bitartez egiten da, hizkuntza oso testuinguru argian erabiliz, eta helburu nagusia, ikasleak bigarren hizkuntzan<sup>12</sup> (2H) adierazpenak egitea ez ezik, parte hartu nahi izatea 2Hn parte hartzea da” (Ruiz-Bikandi, 2009: 30). Irakasleak ikasgelan bere diskurtsoa nagusitzen badu, ordea, hurrek 2Haren jabekuntzan emaitza eskasak lortuko dituzte (Ruiz-Bikandi, 2009).

### 2.1.2. Faktore ez linguistikoak: motibazioa, jarrera eta gurasoen nahia

Nahiz eta 2Hren jabekuntza baldintzatzen duten faktore ez linguistiko ugari dauden, lan honetan hurren motibazioari, jarrerari eta gurasoen nahiari garrantzia eman zaie.

Hurrek hizkuntza berri bat ikasteko motibazioa izatea ezinbestekoa da, bestela “alferrikakoak izango dira antolatzaile eta irakasleen ahaleginak” (Bilbao, 1998: 86). Hurrek soilik ikasiko dute hizkuntza bat, hori ikasteko nahia badute. Gainera, haurrentzat beren gurasoek eskolako hizkuntzarekiko daukaten jarrera garrantzi handia dauka. Izan ere, “hurrek balioa emango diote eskolako hizkuntzari nahiz etxeoari gurasoek hala egiten badute” (Bilbao, 1998: 87). Era berean, funtsezkoa da gurasoek eta eskolak euren jatorrizko hizkuntzak errespetatzen eta baliagarri ikusten dituela ikustea (Manterola eta Berasategi, 2011).

Haur etorkinen kasuan, egoera hori zaildu egiten da. Askotan kanpotik etorritako gurasoek beldurra daukate pentsatzen dutelako hemengo hizkuntzak ikasteagatik berea galduko dela. Hori dela eta, batzuetan hemengo hizkuntzak alboratzen dituzte eta ondorioz, hurrek ere hizkuntza berriak ikastearen kontra jartzen dira.

---

<sup>11</sup> Hitzun berriak egiten duen hizkuntz-produkzioa (Ruiz-Bikandi, 2009).

<sup>12</sup> Nahiz eta 2Hren terminoa erabili den, haur batzuentzat euskara hirugarren edo laugarren hizkuntza izango da.



## 2.2. Haurren hizkuntza ebaluatzeko prozedurak eta baliabideak

Aurreko atalean aipatu den bezala, hurrek ekoizten duten *output-a* ebaluatzeko, Mayorrek (1994) hiru tresna aipatzen ditu: i) gela barruko behaketa, ii) prozedura estandarizatuen, hau da, testen edo garapen-eskalen erabilera edo iii) ekoizpen espontaneoaren erabilpena. Behaketa irakasle batek duen tresnarik baliotsuena izanik, irakasleak horretaz etengabe baliatu behar dira. Testak funtsezko tresnak badira ere, ikerkuntza hau hirugarren horretan zentratuko da. Izan ere, Mayorrek (1994) haurren hizkuntza aztertzeko, prozedura espontaneoek garrantzia ematen dizkio, irakasleak berak eskolan bertan erraz erabil baitezake eta haurren konpetentzia komunikatiboaren balorazio kualitatiboa eskaintzen baitu, hau da, irakasleak haurrak hitz egiten duen heinean, beren gaitasunak eta zailtasunak zeintzuk diren ezagutu ahal ditu.


Aditu horren antzeko ideia duten beste autore batzuk daude, horien artean, Manterola (2010). Honek bere tesiko ikerketa egiteko, ipuin bidezko kontaketa espontaneoaren erabili zuen, arrakasta handiz, gainera. Toughek (1987) ere bere ikerketak aurrera eramateko, irudi-ipuina erabili zituen. Gainera, Haur Hezkuntzan ipuina zein liburuak irakurtzea eta behatzea oso ohikoa den jarduerak bat denez, haurrak seguru sentitzen dira mota horietako jarduerak eginez. Hortaz, ikasleen mintzaira gaitasunak ikertzeko baliabide egokia dela baieztatu ahal da.

### 2.2.1. Ebaluatzailearen rola

Oso garrantzitsua da haurren hizketa espontaneoaren lortzeko ebaluatzaileak hartzen duen rola. Normalean, hurrek irudietan ikusten dituzten elementuak seinatzera edo izendatzera mugatzen dira. Hortaz, ebaluatzaileak enfasia jarri behar du hurrek irudian gertatzen denaren azalpena eman ahal izateko. Horretarako, garrantzitsua da hurrei galdera oso itxiak ez egitea, hau da, monosilaboak eskatzen dituzten galderak ez erabiltzea. Galdera hauen ordez, galdera irekiak erabiltzea komenigarria da, esaterako, *zer ikusten duzu irudi honetan?*. Izan ere, galdera horien bidez, hurrek beren interpretazio pertsonala eman ahal dute, esaldi osoak eta luzeak eginez (Mayor, 1994).

### 2.2.2. Materiala

Ebaluatzailearen rola ez ezik, erabiliko den materiala ere oso garrantzitsua da. Baliabideak anitzak izan daitezke, adibidez, jostailu bat edo ipuin bateko irudiak. Irudien kasuan, haurrentzat esanguratsuak izan behar dira, hots, haurrek ezagutzen dituzten elementuren bat agertu behar da, esate baterako, kotxe bat edo katu bat. Horrez gain, Toughek (1987) irudiak kolorerik gabekoak<sup>13</sup> eta beren trazadua zehatza eta aberatsa izatea aholkatzen du, haurrek eztabaida mantendu zein pentsamendua garatu ahal izateko (ikus 1. irudia).



1. irudia: "El gatito negro se pierde" ipuinaren lehengo irudia (Tough, 1987:165)

### 2.2.3. Hizkuntza Prozesatzeko Tresnak

Irudien inguruan sortutako haurren ekoizpen espontaneoak aztertzeke, teknologia berri asko daude. Izan ere, teknologiaren garapenari esker, gero eta ugariagoak dira hizkuntza prozesatzeko sortzen ari diren tresnak. Tresna horiek oso baliagarriak dira, ordenagailuak gizakiok baino azkarrago aztertzen baititu testuak edo hizketa-grabazioak (Sarasola, 2013).

Hizkuntza modu orokorrean aztertzeke tresna automatiko bat ANALHITZA da. Euskal Herriko Unibertsitateko Ixa taldeak sortu zuen eta testu baten ezaugarri orokorrak automatikoki aztertzeke aukera ematea da bere helburua. Programa horrek beste funtzio batzuen artean, hitzak, letrak eta lemak zenbatzen, hitzak kategoriaka sailkatzen eta deklinabidea zehazten du (unitatea). Horrez gain, hitz-kategoria bakoitzetik erabili diren hitz desberdinen kopurua (motak) zein ehunekoa (konplexutasuna) eta diskurtso osoa

<sup>13</sup> Koloreak dituzten irudiak zailtasunak sor ditzaketeelako.

kontuan hartuta hitz-kategoria desberdinak zenbat erabili diren eskaintzen digu (hitzen %) (ikus 3. eta 4. taulak).

	Unitatea	Motak	Hitzen %
Izenak	65	35 (% 53,85)	% 28,26
Aditzak	57	13 (%22,81)	% 24,78
Adberbioak	3	1 (%33,33)	% 1,30
Determinatzaileak	35	7 (% 20)	% 15,22
Konjuntzioak	43	2 (% 4,65)	% 18,70
Kasuak	86	7 (% 8,14)	

3. taula: ANALHITZA programarekin egindako azterketaren adibide moldatua

Izenak		Aditzak		Determinatzaileak		Konjuntzioak		Kasuak	
14	katu	15	egon	15	bat	38	eta	55	ABS
5	mutil	9	ukan	9	hau	5	ze	12	INE
4	etxe	8	izan	4	ze			10	GEN
3	aita	8	ikusi	3	asko			4	ERG
3	jolas	4	egin	2	dena			4	ALA
3	barru	2	eduki	1	horiek			2	SOZ
2	ama	2	ibili	1	beste			1	GEL

4. taula: ANALHITZAK ematen dituen alderdi linguistiko batzuen adibide moldatuak

Gainera, erabiltzeko oso erraza da. Izan ere, testua sartu eta hizkuntza zehaztu behar da besterik ez (ikus 2. irudia). Jarraian programak kalkulu-orrian emaitzak eskaintzen ditu.

EU EN ES

ANALHITZA  
Powered by CLARIN

ANALHITZari bidalitako testuetako (alde batetik, testu hutsa edo txt eta UTF8 kodeketaekin eta, bestetik, webguneak) informazio linguistikoa (hitzak, maiztasunak, entitateak...) kalkulu orrietan jasoko duzu. Azterketa automatikoarekin lortutako emaitza erabat moldagarriak dira.

Fitxategia igo (txt formatuan)    Sartu Testua    Uri-a sartu

2. irudia: ANALHITZA tresnaren web guneko hasierako orria

### 3. Metodologia

Lan honen bidez, euskarari haur atzerritarren eta Euskal Herriko haurren ahozko hizkuntzan dauden desberdintasunak behatu, dokumentatu eta ebaluatu nahi dira. Hona hemen hori lortzeko jarraituko diren pausuak.

#### 3.1. Ikasle multzo bi

Ikasleak Zallako Mimetiz eskola publikoko 5 urteko 16 haur dira. Haur horiek bi taldetan banatu ditugu: a) bertoko jatorria duten gurasoak dituzten 8 ikasle eta b) gurasoen jatorria bestelakoa duten 8 ikasle.

Haur horien ama-hizkuntza gaztelania bada ere, euskararen aldeko jarrera dute. Beste jatorria dutenen ama-hizkuntza, ordea, ezezaguna zaigunez, galdetegi bat (ikus 1. eranskina) prestatu da, haur horien egoera hobeto ezagutzeko helburuarekin. Hala ere, galdetegi haur guztiei eman zaie, haurren hizkuntzei buruz informazio gehiago lortzeko helburuarekin.

#### 3.2. Corpora<sup>14</sup> lortzeko baliabideak

Lan honetan, irudi bidezko ipuinetan oinarriturik irakasle-ikasle elkarrizketa erabiliko da, haur talde ezberdinen alderdi linguistikoen ezagutza maila ikertzeko. Ipuin horiek, Tough (1987: 106) adituak proposatzen dituenak dira: “Papá olvida su merienda” eta “El gatito negro se pierde” (ikus 2. eranskina).

#### 3.3. Corpora lortzeko modua

Irudi multzo horiek lortzeko, bi saio burutu dira:

1) Lehenengo saioan, 5 urteko gelako haur guztiei “Papá olvida su merienda” ipuina aurkeztu zaie, irudi mota horiekin ohitzeko helburuarekin. Ekintza honetan, haurrek irudi desberdinetan gertatzen dena interpretatu eta kontatu dute.

---

<sup>14</sup> “Alegia, testu-bilduma da, hizkuntzari buruzko azterketak egiteko eta hipotesiak frogatzeko erabiltzen dena. Testu-masa handia izan ohi da, datu-base egoki batean antolatua eta hizkuntzaren erakusgarri dena, benetako erabilerak biltzen dituena” (Urkia, d.g.)

2) Bigarren saioa, ordea, modu indibidualean egin da. Kasu honetan, haur bakoitzari “El gatito negro se pierde” ipuina banan-banan erakutsi zaie eta haiek irudietan ikusten dutena interpretatu dute.

a) Haurren konfiantza lortzeko, irudien interpretazioarekin hasi baino lehen, nire burua aurkeztu dut, hau da, nire izena eta zer egingo dugun azaldu diet. Geroago, Buenok eta Clementek (1991) bere ikerketa lanean proposatzen dituzten galdera batzuk egin dizkiet: 1. Non bizi zara?, 2. Nolakoa da zure logela? eta 3. Zure lagunekin jolasten duzu? Zein da gehien gustatzen zaizun jolasa?

b) Galdera nahiko itxiak erantzun ostean, irudien interpretazioa egiteko prestatu zaie. Nire rola heldu eta laguntzailearena, haurra irudien irakurketan gidatzea izan da. Gidatzeak ez du esan nahi helduak behin eta berriz parte hartu duenik, baizik eta haurren autonomia sustatu duela eta bakarrik beharrezkoa denean lagundu diela. Aipatutako laguntza hori emateko, marko teorikoko 2.2.1 puntuan aipatutakoa kontuan hartu da.

Lehenengo saioan, haur guztiak batera grabatu dira. Bigarreanean, ordea, haur bakoitza banan-banan grabatu da. Azken hau da, hain zuzen ere, aztertu dugun corpusa.

### 3.4. Transkripzioak

Grabaketak Olabarrik (1997) eskaintzen dizkigun arauak kontuan hartuz transkribatu dira, geroago haur bakoitzaren gaitasunak Hizkuntza Prozesatzeko tresnekin aztertu ahal izateko.

Transkribapenetan konfidentziasuna gorde da, hau da, haurren izena ez da erabili. Horren ordez, “I” letra erabili da ikasleak izendatzeko. Ikasle etorkinak eta autoktonoak<sup>15</sup> ikertu direnez, ikasle etorkinei “IE” deitu zaie. Era berean, ikasle autoktonoak “IA” letrekin izendatu dira. Talde bakoitzean zortzi haur daudenez, haur bakoitza desberdintzeko zenbakiak erabili dira: IA-1, IA-2, IA-3 edo IE-1, IE-2, IE-3. Helduaren kasuan, “H” letra erabili da.

---

<sup>15</sup> Etorkin eta autoktono kontzeptuen erabilera Berasategiren (2016) lanetik atera dira. Etorkin hitzak azterritik etorri diren gurasoen seme-alabei egiten die erreferentzia, haur batzuek Euskal Herrian jaiotako direlako. Era berean, autoktono hitza Euskal Herrian jaiotako haurren seme-alabak izendatzeko erabili da.

Horrez gain, transkribapen bakoitzak izenburu bat dauka. Izenburuan haur bakoitzaren zenbakia idazteaz gain, etorkina edo autoktonoa den eta haien etxeko hizkuntza zein den zehaztu da. Adibidez, “IE-1Errumaniera”.

Bestalde, transkripzioetan bi ikur erabili dira: “XX” zerbait ulergarria ez dela adierazteko eta “(())” hurrek momentu horretan egiten daudena adierazteko, adibidez, seinalatzea.

Transkribapenetan hurrek gaztelaniaz esan dituzten hitz guztiak idatzi dira, baina ANALHITZAK ezin dituenek bi hizkuntza aldi berean analizatu gaztelaniazkoak kendu dira euskara delako gure helburua. Haurren transkribapenak eranskinetan aurkitu ahal dira (ikus 3. eranskina).

### **3.5. Corpusaren azterketa Hizkuntzaren Prozesamenduko tresna automatiko batekin**

Transkribaturiko corpora marko teorikoan aipatu den ANALHITZA programarekin aztertu da. Programa honi esker, honako atal hauek aztertu dira modu kuantitatiboan eta kualitatiboan: izenak, aditzak, adberbioak, determinatzaileak, konjuntzioak eta deklinabidea.

Haurren hizketa espontaneoaren datu kuantitatiboak lortzeko, ANALHITZAn lortutako datuak kontuan hartuz, haur bakoitzeko taula bat bete da (ikus 5. taula). Taula horietan, lau zutabe daude: lehenengoan, aztertuko diren hitz kategoria desberdinak zehazten dira. Bigarreanean, haurrak hitz kategoria bakoitzak zenbat aldiz erabili duen aipatzen da, esaterako, IA-3k bere kontakizunean 46 izen erabili ditu. Hirugarrenean, ordea, hitz-kategoria bakoitzetik zenbat hitz desberdin erabili diren ezagutarazten da. Adibidez, nahiz eta haur batek *katu* hitza 5 aldiz erabili, hitz hori behin zenbatu da. Azkenengo zutabean, haur bakoitzaren diskurtso osoa kontuan hartuz kategoria bakoitzak zenbat erabili den ehunekoa ezagutzera ematen da. Gainerako taulak 4. eranskinean aurkitu ahal dira.

IA-3 Gaztelania			
	Unitatea	Motak (Konplex.) <sup>16</sup>	Hitzen %
Izenak	46	24 (% 52,17)	% 38,66
Aditzak	37	19 (% 51,35)	% 31,09
Adberbioak	5	3 (% 60,00)	% 4,20
Determinatzaileak	13	7 (% 53,85)	% 10,92
Konjuntzioak	13	2 (% 15,38)	% 11,11
Deklinabidea	63	7 (% 11,11)	

5. taula: IA-3ari gin zaion azterketaren adibide bat

Geroago, haur bakoitzaren datuak aztertuta, horiek gehitu dira datu orokorrak lortzeko eta haur autoktonoen zein etorkinen arteko desberdintasunak kuantitatiboki aztertzeko (ikus 6. taula<sup>17</sup>).

	Haur etorkinak			Haur autoktonoak		
	Unit.	Motak (Konplex.)	Hitzen %	Unit.	Motak (Konplex.)	Hitzen %
Izenak	266	25 (% 9,40)	% 30,65	319	37 (% 11,60)	% 35,41
Aditzak	258	18 (% 6,98)	% 29,72	258	24 (% 9,30)	% 28,63
Adberbioak	32	7 (% 21,88)	% 3,69	32	5 (% 15,62)	% 3,55
Determinatzaileak	119	10 (% 8,40)	% 13,71	141	13 (% 9,22)	% 15,65
Konjuntzioak	177	4 (% 2,26)	% 20,39	146	4 (% 2,74)	% 16,20
Deklinabidea	370	7 (% 1,89)		449	9 (% 2,00)	

6. taula: Aztertutako bi taldeen azterketa kuantitatiboa maiztasun bateko hitzak kenduta

<sup>16</sup> Konplexutasuna esan nahi du. Hitz-kategoria baten moten kantitatea zati unitateen kopurua bider ehun eginda lortzen da. Adibidez, izenen kasuan,  $(24:46) \times 100 = 52,17$

<sup>17</sup> Taula honetan, azterketa kualitatiboan egingo den bezala, maiztasun bateko hitzak kendu dira. Izan ere, hitz horiek kentzeak ez du azterketaren datuetan eraginik egiten. Era berean, hitz kantitate gutxiagorekin errazagoa da bi taldeak konparatzea eta emaitzak ateratzea.

Bi haur talde hauen arteko desberdintasunak aztertzeaz gain, Larraskituk (2014) bere GRALean sortutako corpusaren zati bat hartu da. Larraskituk ere “El gatito negro se pierde” irudiak erabili zituen Lekeitioko, hau da, ingurune euskalduneko 4 urteko haurrekin. Beraz, euskararen jabeakuntzari dagokionez, ingurune euskaldunean eta ingurune erdaldunean bizi diren haurren arteko konparaketa egiteko, 4 urteko 4 haurren<sup>18</sup> transkripzioak hartu eta ANALHITZAN sartu dira. Kasu honetan ere, maiztasun bateko hitzak kendu dira. Emaitzak 7. taulan erakusgai daude.

Lekeitioko 4 urteko haurrak			
	Unitatea	Motak (Konplex.)	Hitzen %
Izenak	73	14 (% 19,18)	% 23,03
Aditzak	77	16 (% 20,78)	% 24,30
Adberbioak	17	4 (% 23,53)	% 5,36
Determinatzaileak	51	5 (% 10,20)	% 16,10
Konjuntzioak	97	4 (% 4,12)	% 30,60
Deklinabide kasuak	128	8 (% 6,25)	

7. taula: Lekeitioko 4 urteko 4 haurren azterketa kuantitatiboa maiztasun bateko hitzak kenduta

Datu horietaz aparte, hiru haur taldeen desberdintasunak hobeto ikusteko, hitz kategorien datu kualitatiboak ere atera dira. Hona hemen, adibide moduan, aditzen taula moldatua (ikus 8. taula). Gainerako taulak 5. eranskinean edo emaitzak atalean daude.

Aditzak					
Haur etorkinak		Haur autoktonoak		Lekeitioko haurrak	
76	egon	56	egon	16	izan
41	ukan	37	ukan	14	ukan
38	izan	31	izan	7	jan
15	joan	18	hartu	6	egon
14	jolastu	17	jan	6	joan
14	jan	16	joan	4	pasatu
14	egin	13	ikusi	3	jolastu
8	eduki	11	eduki	3	esan
7	esan	9	jolastu	3	egin
6	jakin	7	egin	3	hartu

8. taula: Aditzen taula moldatua (taula osoa 5. eranskineko 17. taulan aurkitu ahal da)

<sup>18</sup> Nahiz eta kasu honetan 4 haur aztertu diren eta ez 8, datuak ez dira emaitzetan eraginik izaten, talde bakoitzaren datuak bere taldearekin soilik konparatzen direlako. Gainera, normalizatu dira.



#### 4. Emaitzak

Atal honetan, lortutako corpusaren emaitzak azaltzen dira. Horretarako, metodologia atalean eta 5. eranskinean agertzen diren taulak erabili dira. Geroago, datu hauetatik abiatuz, ahulguneak indartzeko proposamena egin da.

##### 4.1. Izenak

6. taulan eta 5. eranskineko lehenengo taulan ikusi ahal dugun bezala, haur etorkinek 266 izen erabili dituzte. Autoktonoek, ordea, 319. Beraz, autoktonoek etorkinek baino izen gehiago erabili dituzte. Hala ere, maiztasun handieneko hitzak, (lehenengo hamar hitzak) begiratzen baditugu, izenen erabileran desberdintasun handirik ez dagoela behatu ahal da (soilik maiztasunean). Izan ere, bi taldeek ia-ia hitz berdinak erabili dituzte: *katua*, *etxea* edo *aita*. Gainera, oso esanguratsua da bi taldeek esandako izen berdin horiek eskoletan normalean erabiltzen direnak izatea (ikus 9. taula).

Haur etorkinak		Haur autoktonoak		Lekeitioko haurrak	
70	katu	71	katu	32	katu
23	etxe	28	etxe	7	nahia
20	nahia	17	nahia	7	gizon
18	ama	17	mutil	5	emakume
16	aita	16	kamioi	5	egun
15	txakur	13	kotxe	3	ume
12	kotxe	12	aita	3	errepide
11	ume	12	txakur	3	etxe
11	kamioi	11	neska	2	kanpo
10	mutil	11	ama	2	txakur

9. taula: Lehenengo 10 izenen taula (taula osoa 5. eranskineko 16. taulan aurkitu ahal da)

Bestalde, egia da haur euskaldunek etorkinek erabili ez dituzten izen batzuk erabili dituztela, zehatz-mehatz 20 izen. Horien adibide *jostailu*, *platera*, *panpina* eta *denda* dira. Etorkinek ere, haur autoktonoek aipatu ez dituzten 8 izen erabili dituzte, hala nola, *lagun*, *familia* eta *egun*. Beraz, bi taldeek beste taldeak erabili ez dituen izenak erabili dituzten arren, konparaketa egiten badugu, autoktonoek 12 izen desberdin gehiago esan dituzte. Adibidez, elkarrizketa egiteko erabili diren irudietan agertzen diren paisaiak deskribatzeko, etorkinek *arbola* eta *trena* izenak baino ez dituzte erabili. Autoktonoek, berriz, *zuhaitza*, *errepidea*, *hostoak*, *belarra*, *furgoneta* eta *denda*. erabili dituzte.

Konplexutasunari dagokionez, haur autoktonoek esandako 319 izenetatik 37 (% 12,27) desberdinak dira, hau da, errepikatu gabeko izenak dira. Etorkinek, ordea,

esandako 266 izenetatik 25 (% 10,58) baino ez dira desberdinak. Beraz, haur autoktonoek konplexutasun eta ugaritasun gehiagoarekin erabili dituzte izenak. Lekeitiarrek, berriz, esandako 73 izenetatik 14 (% 19,18) desberdinak dira. Horrek esan nahi du 4 urteko haurrek euskaraz izen desberdin gehiago erabili dituztela ariketa honetan.

#### 4.2. Aditzak

Aditzei dagokionez, bai etorkinek, bai autoktonoek 258 aditz esan dituzte. 8. edo 5. eranskinen 2. taulan ikusi ahal dugun bezala, bi taldeetan esanahirik gabeko aditzak, hau da, *egon*, *ukan* eta *izan* maiztasun handieneko aditzak dira. Gainerakoak, batez ere, eskolan erabilitakoak dira, hala nola, *edan*, *eraman*, *batu* eta *eskatu*.

Bi taldeek aditzak maila berdinean erabili dituzten arren, motei erreparatzen badiegu, haur etorkinek 18 (% 6,98) aditz desberdin baino ez dituzte esan. Autoktonoek, berriz, 6 gehiago, hau da, 24 (% 9,30). Horien artean, *ibili*, *afaldu* eta *jesarri* daude. Haur Lekeitiarrek erabili dituzten 77 aditzetatik 16 (% 20,78) desberdinak ziren. Horrek esan nahi du hauek besteek baino aditz desberdin gehiago erabili dituztela. Gainera, beste bi taldeek erabili ez dituzten aditz konplexuagoak erabili dituzte: *emakumetu* eta *harrapatu*.

#### 4.3. Adberbioak

Haur autoktonoek eta etorkinek erabili dituzten adberbioak nahiko antzekoak dira: *hemen*, *horrela* eta *oso*. Izan ere, 6. eta 10. taulei erreparatzen badiegu, haur etorkinek eta autoktonoek 32 alditan erabili dituzte adberbioak. Hala ere, motei dagokionez, etorkinek autoktonoek baino adberbio desberdin gehiago erabili dituzte, hau da, etorkinek 7 (% 21,88) adberbio desberdin esan dituzte eta autoktonoek, ordea, 5 (% 15,62). Datu horiek baino ez baditugu kontuan hartzen, argi dago etorkinek autoktonoek baino bi adberbio gehiago erabili dituztela.

Haur etorkinak		Haur autoktonoak		Lekeitioko haurrak	
9	hemen	12	hemen	5	ia
8	gero	11	asko	5	hemen
5	horrela	4	oso	4	gero
3	lo	3	lotan	3	orain
3	hor	2	horrela		
2	pozik				
2	lotan				

10. taula: Adberbioen taula

Emaitzak horrela badira ere, esan beharra dago, etorkinen kasuan, *gero* adberbioa haur batek bakarrik erabili duela. Hori dela eta, ezin da baieztatu gainerako haur etorkinek adberbio hori ezagutzen dutenik. *Hemen* hitzarekin gauza berdina gertatzen da. Nahiz eta emaitzetan *hemen* hitza 9 aldiz erabili dela esan, haur batek 6 aldiz erabili dituenek, ez dakigu gainerako haurrek hitz hori erabiltzen dakiten. Autoktonoen kasuan, ordea, maiztasun handieneko hitza, hau da, *hemen* haurren erdiak erabili dute eta ez soilik haur batek edo bik. *Asko* hitzarekin gauza berdina behatu dezakegu. *Asko* 11 aldiz erabili dituzten 5 haur desberdin daude. Beraz, kasu honetan, *asko* hitza haur autoktonoen artean ezaguna dela esan dezakegu.

Atal honen hasieran aipatutako datuak Lekeitioko haurrekin konparatzen baditugu, hauek esan dituzten 17 adberbioetatik 4 desberdinak dira (% 23,53). Gainera, gogoratu behar dugu datu hauek 4 urteko 4 umeren umeren datuak direla, ez zortzi umerenak, beste bi taldeetan gertatzen den bezala. Beraz, esan beharra dago hauek esandako 17 adberbio beste bi taldeek esandako adberbio kantitatearen erdira heltzen dela. Horrela, haur Lekeitiarrek nahiz eta txikiagoak diren, adberbio maila berdina edo gehiago erabili dutela baieztatu ahal dugu.

#### 4.4. Determinatzaileak

Determinatzaileei dagokionez, *bat* gehien erabili duten determinatzailea da, bai haur etorkinek, bai autoktonoek 60 aldiz baino gehiago erabili baitute. Horrez gain, *hau*, *hori*, *bi*, *beste*... motatako determinatzaileak erabili dituzte (ikus 11. taula).

Haur atzerritarrak		Haur euskaldunak		Lekeitioko haurrak	
62	bat	69	bat	22	bat
18	hau	20	ze	14	beste
8	hori	15	hau	9	hau
7	ze	7	dena	3	bi
7	beste	6	bera	3	zer

11. taula: Lehenengo 5 determinatzaileen taula (taula osoa 5. eranskineko 18. taulan aurkitu ahal da)

Haur autoktonoek 141 determinatzaile erabili dituzten bitartean, haur etorkinek 119 erabili dituzte. Konplexutasunari erreparatzen badiogu, haur autoktonoek 13 (% 9,22) determinatzaile desberdin erabili dituzte. Etorkinek, ordea, 10 (% 8,40). Beraz, haur autoktonoek determinatzaileak gehiago erabili badituzte ere, mota desberdin gehiago erabili dituzte. Adibidez, haur autoktonoek haur etorkinek erabili dituzten determinatzaileez gain, *dena*, *asko* eta *zer* determinatzaileak erabili dituzte. Haur

Lekeitiarrekin konparatuz, hauek 51 determinatzaile erabili dituzte. Horietatik, 5 (% 10,20) desberdinak dira. Beraz, berriz ere, azken haur hauek beste bi taldeekin konparatuta, determinatzaile desberdin gehiago erabili dituzte.

#### 4.5. Konjuntzioak

Kuantitatiboki, haur autoktonoek 146 determinatzaile erabili dituzte. Etorkinek, berriz, 31 gehiago, hau da, 177. Bi taldeek maiztasun bat baino gehiagoko konjuntzio berdinak erabili dituzte: *eta*, *ze*, *ere* eta *edo*. Normala den bezala, *eta* bi taldeek gehien erabili duten konjuntzioa da, haur etorkinek 151 eta haur autoktonoek 127 aldiz erabili dutelarik. Datu horiek kontuan hartuz, 16 haur hauek *eta* konjuntzioa ezagutzen eta erabiltzen dakitela baieztatu ahal da. Hortaz, datuen azterketa honako hitz hau kenduta egingo da (ikus 12. taula).

Haur etorkinak		Haur autoktonoak		Lekeitioko haurrak	
151	<i>eta</i>	127	<i>eta</i>	83	<i>eta</i>
14	<i>ere</i>	11	<i>ze</i>	9	<i>bere</i>
10	<i>ze</i>	5	<i>edo</i>	3	<i>ze</i>
2	<i>edo</i>	3	<i>ere</i>	2	<i>ere</i>

12. taula: Konjuntzioen taula

*Eta* konjuntzioa alde batera utzita, haur etorkinek 26 alditan erabili dituzte konjuntzioak. Autoktonoek, ordea, 19. Bi taldeek 3 konjuntzio desberdin esan dituztenez, haur etorkinen % 15,38a eta autoktonoen % 15,79a konjuntzio desberdinak dira. Haur Lekeitiarrekin (*eta* konjuntzioaren erabilera kenduta) 14 konjuntzio erabili dituzte, horietatik 3 (% 21,43) desberdinak dira. Beraz, konplexutasunari dagokionez, Lekeitioko haurrek ehuneko altuagoa lortu duten arren, ezin da zuzenean baieztatu hauek beste bi taldeek baino konjuntzioen erabilera aberatsagoa duten.

*Eta* konjuntzioaz aparte, *ere* konjuntzioan desberdintasun nabarmenak ikusi ahal dira. Izan ere, haur etorkinek 14 aldiz erabili dute eta haur autoktonoek soilik 3. Transkripzioei erreparatuz, behatu ahal da nola IA-5 haurrak *ere bai* konjuntzioa 12 aldiz erabili dituen. Gainerako bi aldiak beste bi haurrek esaten dituzte. Hori dela eta, ezin da baieztatu gainerako haur etorkinek hitz horren erabilera ezagutzen duten. Era berean, askotan beste hizkuntzen eragina dela eta, haurrek txarto erabiltzen dute partikula hau, hori normalean esaldi osoaren aurrean kokatzen dutelako: ...*eta ere bai dago ama eta ere bai dago ume baterekin* (IA-5). Gehienetan aztertutako etorkinek *ere* konjuntzioa txarto erabiltzen

badute ere, IA-7k esaldian ondo kokatu du, nahiz eta ergatiboa ez jarri: *eta aita jan eta katua ere bai*.

Autoktonoei dagokionez, *ere* hobeto erabili dute: *Familia jaten eta katutxo ere* (IE-1). *Eta hemen dago jolasten, hauek ere jolasten eta hau lotan eta hau jaten* (IE-6). Nahiz eta hurrek esaldi horietan *ere* ondo kokatu duten, oraindik akats handiak ikusi ahal dira partikula horren erabileran. Hori dela eta, ezin da baieztatu haur hauek horren erabilera zuzen daukatenik.

Ingurune euskalduneko hurrek, ama-hizkuntzaren transferentzia negatiboa dela eta, *ere* partikularen erabileran ere zailtasunak dituztela ikusi da, hori, berriz ere, esaldiaren hasieran kokatzen dutelako: *Ere bai da margozteko. Jolastu janariarekin eta ere gauzak bota, eta bat alde egin*.

#### 4.6. Deklinabide kasuak

Kasuei dagokionez, aztertutako hiru taldeek kasu hauek erabili dituzte: absolutiboa (nor), inesiboa (non), adlatiboa (nora), genitiboa (noren), soziatiboa (norekin), ergatiboa (nork) eta datiboa (nori). Horien artean, gehien erabili duten kasua absolutiboa izan da, haur etorkinek 273, haur autoktonoek 321 eta lau urtekoek 76 aldiz erabili dutelarik (ikus 13. taula). Absolutiboaren ostean, inesiboa da gehien erabili dutena.

Haur etorkinak		Haur autoktonoak		Lekeitioko haurrak	
273	ABS	321	ABS	76	ABS
50	INE	64	INE	22	INE
15	ALA	18	GEN	10	SOZ
13	GEN	15	ERG	9	ALA
8	SOZ	12	ALA	4	DAT
7	ERG	7	SOZ	3	ERG
4	DAT	6	DAT	2	ABL
		4	ABL	2	GEL
		2	GEL		

13. taula: Deklinabide kasuan taula

Gainerako kasuak, maiztasun antzekoarekin erabili dituzte, ergatiboa izan ezik, hau da, autoktonoek etorkinek baino 8 aldiz gehiago erabili baitute. Hala ere, bi taldeek gutxi eta txarto erabili dute. Haur etorkinen kasuan, zortzi haurretatik bik (IA-1 eta IA-7) baino ez dute ergatiboa erabili. Hala ere, haur hauek ez daukate oso argi *-k* marka noiz erabili behar den, hainbatetan ondo erabili dutelako, baina beste askotan ez dutelako erabiltzen

erabili behar den lekuan: *Nik egiten dut lo* (IE-1). *Katuak dago autobusearen azpian* (IE-5). *Katua(k) nahi du kalera, parkean jolastu* (IE-4).

Haur autoktonoek haur etorkinek baino gehiago erabili dute ergatiboa. Izan ere, zortzi haurretatik bostek baino ez dute erabili. Etorkinen kasuan bezala, batzuetan *-k* marka ondo kokatu dute: *Aitak hartu du katua* (IA-3). Hala ere, oraindik akatsak asko dira: *Ze nire tata(k) hartzen du dena* (IA-4).

Esan beharra dago, kasu batzuetan ezinezkoa dela hurrek ergatiboa ondo erabiltzen dakiten ezagutzea, haur askok subjektua ez dutelako aipatzen, esaterako, *(Neskak) ikusten du* (IA-8) edo Lekeitiarren kasuan bezala, ahoskera itxiagatik. Edonola ere, baieztatu ahal dugu adin-tarte hauetan hurrei zaila egiten zaiela ergatiboaren erabilera ulertzea.

Gainerako kasuei dagokionez, haur etorkinek okerrak egin dituzte: 1. kasuaren marka ez dute jartzen: *nire tío bat lotan nire etxea(n)* (IE-2). 2. marka birritan esan dute: *bai eta beste bat nahi du joan kalerara* (IE-1) 3. marka okerra erabili dute: *lagun hori joan da etxerera(a)* (IE-4) edo 4. erditik soinuak gehitu edo kendu dituzte: *autobusren, baterekin* (IE-5). Haur autoktonoen kasuan, kasu-marken erabileran haur baten bi akats baino ez daude (IA-5): 1. markaren omisioa: *jolasten dut nire aita(rekin)* eta 2. marka hitz okerrari jartzea: *arropa~~ren~~ nire alaba(ren)*.

Arestian esandakora bueltatuz, haur autoktonoek 449 aldiz erabili dituzte kasu markak. Haur etorkinek, ordea, 370. Gainera, autoktonoek etorkinek erabili ez dituzten bi marka esanguratsu erabili dituzte: ablatiboa (nondik) *hemendik, guztietatik, kotxetik* eta *errepidetik* hitzak erabiliz eta gelatiboa (edo leku genitiboa) *jostailuzko* hitza erabiliz. Ingurune euskalduneko hurrek ere, aipatutako bi marka horiek erabili dituzte. Beraz, haur autoktonoek eta lekeitiarrek kasu marken erabilera handiagoa egin dute.

#### 4.7. Emaidza orokorrak

Aurreko orrialdeetan eta 14. taulan ikus daitekeen bezala, izenak hurrek gehien erabili duten hitz-kategoria da. Izan ere, izenak hurrek ikasten duten lehenengo gauza dira. Hori dela eta, adin-tarte honetan, izenek haurren hiztegian garrantzi handia daukate. Aditzak ere badira haurren hiztegian, baina orokorrean izenak baino maila txikiagoan. Gainerako kategoriak, hala nola, adberbioak, determinatzaileak, konjuntzioak eta kasu-

markak geroago hasten dira haurren hiztegian (Barreña eta García, 2009). Hori dela eta, aztertutako laginean ikusi ahal da zeintzuk oraindik ez direla ugaritasunez erabiltzen.

	Haur autoktonoak	Haur etorkinak	Haur Lekeitiarrak
Izenak	% 30,65	% 35,41	% 23,03
Aditzak	% 29,72	% 28,63	% 24,30
Adberbioak	% 3,69	% 3,55	% 5,36
Determinatzaileak	% 13,71	% 15,65	% 16,10
Konjuntzioak	% 20,39	% 16,20	% 30,60

14. taula: Haurren diskurtso osoa kontuan hartuta hitz-kategoria bakoitza erabili den ehunekoa

Haur Lekeitiarrek ere izenak eta aditzak maila oso nabarmenean erabili dituzten arren, beste bi taldeek baino denbora gehiago eskaini diete gainerako hitz-kategoriei, hau da, determinatzaileei, konjuntzioei eta adberbioei. Horrek adierazi nahi du hizkuntza modu konplexuagoan eta aberasgarriagoan erabili dutela.

## 5. Esku-hartzea

Datuen emaitzak kontuan hartuta, haurrek euskara hizkuntzan erakutsi dituzten zailtasun handienak ergatiboa eta ere konjuntzioaren erabileran izan dira. Hori dela eta, horien erabilera indartzeko ekintza desberdinak prestatu dira. Alde batetik, irakasleak “El gatito negro se pierde” ipuina berriz kontatuko du 2.1.1. puntuko 2. taulako fonetika-fonologia atalean zehaztutako ezaugarriak kontuan hartuz. Horrez gain, bolumena modu esanguratsuan igoko du, batez ere *-k* marka edo *ere* konjuntzioa erabiliko duenean. Beste aldetik, berriz ere ipuinaren irudiak erabiliz, irakasleak haurrek egindako esaldi okerretatik galderak sortuko ditu, haurrek beren akatsez ohartzeko eta era berean, zuzentzeko. Hona hemen adibide batzuk: *Aita\_ hartu du katua* esalditik (IA-3), *Zer hartu du aitak?*, *Katuak dago autobusaren azpian* esalditik (IE-5) *Nor dago autobusaren azpian?*, eta *Ere bai dago ama eta ere bai dago ume baterekin* esalditik (IA-5), *Ama, eta nor gehiago dago etxean?* galdetuko zaie. Era berean, haurrei etxetik ipuinarekin zerikusia duten argazkiak ekartzeko eskatu ahal zaie, kasu honetan, adibidez, animalienak. Irakasleak irudi horiek erabiliz, berriz ere, ere eta ergatiboa lantzeko galderak egin ahal ditu, esate baterako, *Zer jan du katuak?* *Txakurrak ere berdina jan du?*, *Zer dauka txakurrak ahoan?* *Katuak ere hori badauka?*

Horrekin batera, irakasleek modu esanguratsuan zuzenduko dituzte haurren akatsak. Mendizabalek (2000; 2001) bere lanean ikertu zuen bezala, haurrak haiek beren akatsak zuzentzeko gidatu behar dira, hau da, haur batek *Katua kalera joan nahi du* esaten badu, irakasleak ez dio zuzenduko *Ez da katua, katuak baizik* esanez, haurrak seguru aski arreta galduko duelako eta ez delako ohartuko egin duen akatsaz. Hori zuzentzeko, ordea, irakasleak esaldia modu egokian errepikatu beharko dio eta horrela haurrak elkarriketarekin jarraituko du eta akatsaz ohartuko da: *Katuak kalera joan nahi duela? Bai?*

## 6. Ondorioak

Hasteko, esan beharra dago lan honi esker haur autoktonoek, baina batez ere, haur etorkinek eskolatan euskara hizkuntza ikasteko daukaten zailtasunak agerian jarri direla. Horretarako, gogoratu nahi da eskola bateko haurrak grabatu eta transkribatu direla, hau da, lortutako datuak objektiboak eta errealak dira. Horrez gain, hizkuntza prozesatzeko tresna automatiko (ANALHITZA) baten bidez, haur bakoitzaren hizkuntza jabekuntza aztertu eta konparatu da. Azterketa horretan lortutako datuak adierazten dutenez, ingurune euskaldunean bizi diren 4 urteko haurrek, euskara hizkuntzan emaitza hoberenak lortu dituzte. Ingurune erdalduneko haurrek etorkinek baino datu positiboagoak lortu dituzten arren, euskara ingurune euskalduneko haurrek baino askoz gutxiago erabiltzen dute eta hori emaitzetan nabaritzen da.

Datuak horrelakoak izanik, 5. puntuan haurrek frogan izan dituzten zailtasunak murrizteko ekintza batzuk zehaztu dira. Ekintza horiek oso baliagarriak dira, bai haur etorkinentzako, bai autoktonoentzako. Izan ere, haiek egin dituzten okerretatik sortu dira. Horrela, haurrek modu autonomo batean zuzendu ahal dituzte haien jatorrizko hizkuntzak euskararen eragindako transferentzia negatiboa.

Emaitza horien kausa posible batzuk gurasoei egindako galdetegian aurkitu dira. Lehenengoz, haur autoktonoek euskara eskolatik kanpo gutxi baina batzuetan erabiltzen dutela adierazi zuten gurasoen % 75a, adibidez, liburutegian. Haur etorkinek, ordea, batek baino ez zuen adierazi euskara eskolatik kanpo erabiltzen zuela. Horrez gain, haur etorkinen kasuan, guraso bik euskara hizkuntzaren kontra daudela adierazi zuten, euskara modu egokian garatzeko ezinbesteko baldintza dena. Era berean, ikasle autoktonoen kasuan, haurren gurasoen % 75a euskara dakite. Ikaste etorkinek kasuan, guraso batek



bakarrik. Etxean erabiltzen den hizkuntzari erreparatzean, haur etorkinen % 87,5a beren jatorrizko hizkuntza eta gaztelania erabiltzen dutela adierazi zuten. Falta den % 12,5 hori etxean beren jatorrizko hizkuntza baino ez dute erabiltzen. Haur autoktonoen kasuan, berriz, % 25ak gaztelania soilik erabiltzen dute. Gainerako % 75ak etxean gaztelaniarekin batera euskara erabiltzen dute, baina ez komunikatzeko.

Haur hauen bizitzan euskarak duen egoera ikusita, eskolako testuinguruan euskara gehiago erabiltzeko, gurasoei eskolako hizkuntza ikasteko eta jatorrizko hizkuntzak konpartitzeko aukera emateko, Lingolang web gunea oinarritzat hartuz, gelako blog bat sortuko nuke. Horrela, euskara ez dakiten edo horrekiko jarrera negatiboa duten gurasoek hori ikasteko aukera izango dute, hau da, egunero haurrek irakaslearekin batera gurasoei irakatsiko zaizkien hitzak adostu, grabatu eta blogean igoko dira. Era berean, guraso etorkinak beren hizkuntzaren hitzak edo ipuinak igo ditzakete. Horrekin batera, hizkuntza bat hizkuntza hori hitz egiten ikasten da. Hortaz, gelan egunero errutinen irati saio bat egingo nuke non haurrek euskara erabiliz, eskolan egindako ekintzak kontatu ahal dituzten. Hori ere, lehen aipatutako blogean konpartitu ahal da.

Edonola ere, lan honetan muga handiak aurkitu dira. Izan ere, lortu diren emaitzak Haur Hezkuntzako gela bakar batekoak dira. Beraz, emaitza horiek ezin dira beste ikastetxe batzuetara orokortu. Bestalde, kontuan izan behar da haurren lagina txikia dela. Izan ere, eskola berdineko 16 haur ikertzeak errealitate osoaren zati bat baino ez digu ematen. Hortaz, interesgarria izango litzateke etorkizunean metodologia berdina jarraituz beste errealitate batzuk aztertzea eta horrela, datu zehatzagoak eta fidagarriagoak lortzea.

Horretaz aparte, esan beharra dago lan honen beste muga bat denbora izan dela. Izan ere, gogoratu nahi da ikerketa hau egiteko grabaketak eta transkribapenak egiteaz gain, ANALHITZA erabili dela. Teknologiaren erabilera pausu handi bat bada ere, Sarasolak (2013) esaten duen bezala, hizkuntza prozesatzeko tresnak ez dira perfektuak eta askotan horiek hizkuntzan egindako interpretazio okerrak zuzendu behar dira eta horrek ere denbora eta lana behar du. Horrekin esan nahi da ohiko irakasleek eskolan daukaten ikasle ratioarekin eta denborarekin zaila dela ikerketa lanak egitea.

Hala ere, amaitzeko, pentsatzen dut lan honi esker eskolek hizkuntz desberdinak zabaltzeko eta batez ere, gure euskara zaintzeko duen erantzukizuna agerian utzi dela. Beraz, eskolarekin batera, zaindu eta zabal ditzagun munduko hizkuntzak, gure hizkuntzak.

**Erreferentzia bibliografikoak**

- Barreña, A. eta García, I. (2009). Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan: elebarraren eta elebidunengan. *Euskera*. 2009, 54, 2-1. zatia, 603-638.
- Berasategi, N. (2016). Ikasle autoktonoak eta ikasle etorkinak Bilboko eskoletan. Eskola mota eta praktika linguistikoak. *Tantak*, 28 (1), 31-47.
- Bilbao, X. (1998). *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Gazteiz: UPV-EHU eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Saila.
- Bueno, J. eta Clemente, M. (1991). El lenguaje de los niños de 3 a 10 años desde la perspectiva funcional. *Comunicación, lenguaje y educación*, 9, 31-46. <file:///C:/Users/ane/Downloads/Dialnet-ElLenguajeDeLosNinosDe3A10AnosDesdeLaPerspectivaFu-126211.pdf>
- Larraskitu, M. (2014). *4 urtetik 9 urterako haurren diskurtso markatsaileen azterketa* (Gradu amaierako lana). Bilbo: UPV-EHU
- Manterola, I. (2010). *Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa*. (Europako doktorego tesia). Vitoria-Gazteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Manterola, I. eta Berasategi, N. (2011). *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Manterola, I., eta Lardizabal, E. (2009). *Haur etorkinen euskara: eskolaren eta inguru euskaldunaren eragina*. *Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 54, 3. 1511-1535. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mayor, M<sup>a</sup>A. (1994). *Evaluación del lenguaje oral*, en Verdugo, M.: *Evaluación curricular. Una guía para la intervención psicopedagógica*. (pp. 327-422). Madrid: Siglo XXI.
- Mendizabal, A. (2000; 2001). ¿Merece la Pena la Corrección de los Errores Lingüísticos? Presentación de un Estudio Experimental con Niños de Cinco Años. *Revista de Lenguas para Fines Específicos*, 7 y 8
- Olabarri, G. A. (1997). Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak. *Uztaro*, 87, 94.
- Otegi, A., Imaz, O., Diaz de Ilarraza, A., Iruskietak, M. eta Uria, L. (2017). *ANALHITZA: a tool to extrax linguistic information from a large corpora in Humanities research*. *Procesamiento del Lenguaje Natural* 58:77-84.
- Ruiz-Bikandi, U. (apailatzailea.). (2009). *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntza*. EHU-ko argitalpen zerbitzua.
- Sarasola, K. (2013). *Hizkuntzaren prozesamendua*. Zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa. 2016-12-20an hartuta, hemendik: [http://zthiztegiberria.elhuyar.org/artikuluak/Hizkuntzaren\\_prozesamendua](http://zthiztegiberria.elhuyar.org/artikuluak/Hizkuntzaren_prozesamendua)
- Solosona, C. (2008). *El alumno como protagonista: Conocimiento de los factores que intervienen en el proceso de adquisición de una L2*. Zaragoza: II jornadas de innovación docente, tecnologías de la información y de la comunicación e investigación educativa.
- Tough, J. (1987). *El lenguaje oral en la escuela: una guía de observación y actuación para el maestro*. Madrid: Visor.
- Urkia, M. (d.g.). *Euskararen erreferentzia-corpusaren beharraz, en Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra*. 2017-01-18an hartuta hemendik: <http://euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/70502.pdf>
- Vila (2010). Qué puede aportar la educación bilingüe a la educación lingüística del siglo XXI. *Revista de la Asociación de Inspectores de Educación de España*, 13.
- Vila (2006). Lengua, escuela e inmigración. *Cultura y Educación*, 18 (2), pp. 127-142